

Mobile Marketing-aren inguruko II. Jardunaldia, Mondragon Unibertsitatean.

2014/01/14

Mobile Marketing-a guztiz beharrezko elementu bat bihurtzen ari da enpresentzat. Mondragon Unibertsitateak jardunaldi hau antolatu du gaur egungo egoera eta tendentzia berriak bai ikasle eta profesionalei gerturatzeko, beti ere ikuspegi aplikatu batekin.

Jardunaldia eguerdiko ordubiak eta laurdenetan hasiko da Enpresagintza Fakultatean, Oñatin. Hizlarien artean Rocasalvatella, Ideateca, Boletus, Eroski, Batura Mobile, Skura Mobile aurkitu ditzakegu. Jardunaldia Dani Reguera, Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikertzailearen hitzaldiarekin bukatuko da

Informazio gehiago lortzeko Marketing Digital-eko masterraren blog-ean aurkitu dezakegu. Jardunaldira hurbiltzeko konfirmatu asistentzia 943718009(Mireia Igarzabal) telefonora deituz edota mail bat bidaliz migarzabal@mondragon.edu.

